

# 2023KO MAIATZAREN HAUTESKUNDEAK

## - HAUTESLE ERROLDAREN BULEGOA -

POSTA BIDEZ BOZKATZEKO ESKABIDEA – ORRI OSAGARRIA

Orri osagarri honekin batera doan inprimakia eskabide-eredua da. Inprimaki hori erabili behar du hautesleak, hain zuzen, Hautesle Erroldaren Bulegoaren Probintzia-Ordezkaritza egokian errolda-ziurtagiria eskatzen duenean. Izan ere, hori izango da lehenengo pausoa posta bidez bozkatu ahal izateko, **maiatzaren 28an** egingo diren hauteskundeetan.

### NORK BOZKA DEZAKE POSTA BIDEZ?

Posta bidez bozka dezakete hauteskunde-egunean boto-eskubidea erabiltzea dagokien udalerritik kanpo egongo direla aurreikusten duten hautesleak.

Atzerrian bizi diren hautesleak aldi baterako Espainian baldin badaude, posta bidez bozkatzeko agiriak Espainiako helbide batera bidaltzeko eska dezakete, eta, horretarako, posta bidez bozkatzeko eskabidea bete behar dute "x" jarriz "Atzerrian bizi" atalean.

Orobat, gaixotasuna edo ezintasun fisikoa dela-eta hauteslekura joaterik ez duten hautesleak ere postaz bozkatu ahal izango dute.

**Botoa posta bidez emateko eskaera bidali eta onartzen bada, ezin izango duzu mahaian botoa eman.**

### POSTA BIDEZ BOZKATZEKO PROZEDURA:

#### A. ESKABIDEA

Eskabidea interesdunak berak bete behar du.

Eskabidea eta bidaltzeko gutun-azala Hautesle Erroldan inskribatuta dagoen probintziara igorri beharko dira.

Gaixotasunik edo ezintasunik izanez gero (medikuaren egiaztagiri ofizial bidez egiaztatu behar dena), eskabidea hauteslearen izenean egin dezake pertsona baimenduak, notariotzan edo kontsuletxean emandako agiriaren bitartez.

Baimen-agiri hori banakakoa izango da eta ezin izango da agiri berean hautesle bat baino gehiago sartu, ezta pertsona berak hautesle bat baino gehiago ordezkatu ere (agiri hauek **doan** eman beharko dira). Kasu horietan eskabidea ordezkariak berak edo ordezkariak sinatu beharko du.

**Medikuaren egiaztagiria eta baimena eskaera bidaliko den gutun-azalean sartu behar izango dira.**

#### B. AURKEZTEKO TOKIA

Eskabidea, behar bezala bete eta sinatu ondoren, **Espainiako edozein Posta-bulegotan** aurkeztu behar da. Eskabidea jasoko duen langileak NAN agiria aurkezteko eskatuko dio interesdunari eta sinadurak bat datozen egiaztatuko du. Ez da NANaren fotokopiarik onartuko, inolaz ere.

Posta arruntez bidalitako eskabideak ez dira onartuko.

#### C. POSTA BIDEZKO BOTOA ESKATZEKO EPEA

Hauteskundeetarako deia egiten denetik bozketa egunaren bezpera baino hamar egun lehenago arte (**maiatzak 18**) eska daiteke.

Nolanahi ere, posta bidez bozkatzeko eskubidea erabiltzeko asmoa baduzu, ez itxaron azken unera arte. **Bete eskabidea lehenbailehen.**

#### D. POSTA BIDEZ BOZKATZEKO AGIRIAK BIDALTZEA

Hautesle Erroldaren Bulegoaren Probintzia-Ordezkaritza egokiak posta bidez bozkatzeko behar diren agiriak bidaliko ditu, maiatzaren 8tik aurrera. Eskabidean adierazi duzun helbidera bidaliko ditu agiriok, zure izenean.

Agiri horiek jaso izanaren ziurtagiria interesdunak berak sinatu behar du, nor den frogatu eta gero.

#### E. POSTA BIDEZKO BOTOA BIDALTZEKO EPEA

**Botoa posta ziurtatuaren bidez bidali behar da, gehienez ere maiatzaren 24an.**